

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu nagusiaren 79/2024 Foru Dekretua, ekainaren 28koa. Noemí Aguirre Quintana Nekazaritza Sailaren titular izendatzea

Diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura zehazten da 2023-2027 legegintzaldirako; halaber, data bereko hurrengo 153/2023 Foru Dekretuaren bidez, zeina uztailaren 4ko 156/2023 Foru Dekretuak aldatu baitzuen, sail bakoitzaren foru diputatuak izendatu ziren, eta, besteak beste, Amaia Barredo Martín izendatu zen Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatu kargurako.

Diputatu nagusiaren ekainaren 25eko 75/2024 Foru Dekretuaren bidez, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailaren titularraren kargugabetzea xedatu zen, hark hala eskatuta. Horiek horrela, aipatutako 152/2023 Foru Dekretua aldatzea eta, ondorioz, aipatutako sailari Nekazaritza Saila izena ematea erabaki du diputatu nagusiak ekainaren 28an.

Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 15.1.d) artikulua babespian dagozkidan ahalmenez baliatuz, ebazpen honen bidez sail horren titularra izendatzen da. Horretarako

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Noemí Aguirre Quintana Nekazaritza Saileko foru diputatu izendatzea.

Bigarrena. Foru dekretu honen berri ematea Arabako Batzar Nagusiei, eta ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE